

Beti berandu

Jarduera honetan, hitzorduetara beti berandu iristen den jendeaz jardungo dugu batik bat.

Ariketa hauek egin ditzakezu:

- Bideoa ikusi eta ulermen-galderei erantzun.
- Bizkaieraz dauden zenbait forma euskara batuan idatzi.
- Gaiarekin lotutako zenbait hitz-multzo osatu.
- Puntualtasun faltak sortarazten dizkigun sentimenduen berri eman.



1. Berantiarrak sailkatzen

Aurki bideo bat entzungo duzu, puntualtasunari buruz hitz egiten duena. Bideoa ikusi aurretik, baina, komentatu ikaskide batekin honako hau:

- **Zu puntuala al zara? Ba al da zure kuadrillan, familian... beti berandu iristen dena?**

Ondorengo bideoan, O. Enbeitak 4 taldetan sailkatzen du berandu etortzen den jendea. Idatzi labur 3 talderen ezaugarriak (1.aren ezaugarriak jarrita dituzu).

<https://labur.eus/6ZiGX>



Berandu etortzen direnak sailkatzen:

1. taldea: 5 minutu berandu edo geroago etortzen direnak; ez dute azalpenik emateko beharrik sentitzen.

2. taldea:

3. taldea:

4. taldea:

2. Bizkaieratik batura


Hemen dituzu Onintza Enbeitak esandako esaldi batzuk. Jarriko al dituzu azpimarratutako hitzak (aditzak eta izenak) euskara batuan? Erreparatu 0 esaldiari.

0. Itxaroten zagozenezan sikiera haserre zagoz. **zaudenean**
1. Azkenean, bost minutu baino ez direnez, ez dabe esplikaziorik emon behar.
2. Hori bai, kontuak eskatzea otutzen bajatzu...
3. Trafikoa, neska! Zeozer egin beharko da hainbeste kotxegaz!
4. Momentu baten oso kezkatuta zagoz, zeozer pasatu jakolako.
5. Orduan heltzen dira eta mundua gelditzeko moduko atxakia botatzen deutsu.

3. Hitz-multzoak osatzen

Hemen dituzu bideotik hartutako zenbait espresio hitz-multzoak osatuta (izena+aditza, aditza+izena...) Hemen bi zutabetan banatuta dituzu; lotuko al dituzu?

aitzakiak	eskatu, eman
garaiz, berandu	etorri, ailegatu, heldu
esplikazioak/azalpenak	jarri, bota
itxaron	norbaiti, luzaro, ordu-erdia
luze	egin, iritzi



4. Pazientzia galtzen hasita

– Jarri talde txikitan eta komentatu beheko 3 puntu horiek.

Sentimenduak
haserre
lasai kezkatuta
suminduta
bere onetik aterata
ernegatuta
zapuztuta etsita
egoera ulertuz
 ... (osatu zerrenda)

- Nolako sentimenduak izaten ditugu bat berandu etortzen denean? Ezkerreko zutabean dauzkazu batzuk; osatu, lehendabizi, zerrenda hori.
- Bideoan, Onintza Enbeitak lau multzotan banatzen ditu hitzorduetara berandu etortzen direnak: 5 minutu, 15 edo 30 minutu beranduago heltzen direnak eta, azkenik, agertzen ez direnak. Nola iruditzen zaizu erreakzionatzen duela kasu bakoitzean? (Nahi baduzu, ikusi berriro bideoa)
- Eta zuk nola erreakzionatzen duzu bat berandu etortzen denean?

– Eta ikasgelan putualak al zarete? Puntual hasten al dira klaseak? Horrela ez bada, proposatu neurriak puntualtasun falta konpontzeko. Ondoren, komentatu talde osoaren aurrean eta aukeratu neurriak eraginkorrenak.

ERANTZUNAK

1. Berantiarrak sailkatzen

1. taldea: 5 minutu berandu edo geroago etortzen direnak; ez dute azalpenik emateko beharrik sentitzen.
2. taldea: 15 minutu beranduago edo geroago etortzen direnak. Galdetuz gero, beti daukate aitzakiaren bat
3. taldea: Ordu-erdi edo gehiago. Beti daukate aitzakia borobil bat.
4. taldea: Agertzen ez direnak. Gehienetan, gauean ordu txikitan egindako hitzorduak.

2. Bizkaieratik batura

1. Azkenean, bost minutu baino ez direnez, ez dabe esplikaziorik emon behar. (**dute, eman**)
2. Hori bai, kontuak eskatzea otutzen bajatzu... (**bazaizu**)
3. Trafikoa, neska! Zeozer egin beharko da hainbeste kotxegaz! (**kotxerekin**)
4. Momentu baten oso kezkatuta zagoz, zeozer pasatu jakolako. (**zaude, zaiolako**)
5. Orduan heltzen dira eta mundua gelditzeko moduko atxakia botatzen deutsu. (**aitzakia, dizu**)

3. Hitz-multzoak osatzen

aitzakiak (jarri, bota)
 garaiz, berandu (etorri, ailegatu, heldu)
 esplikazioak/azalpenak (eskatu, eman)
 itxaron (norbaiti, luzaro, ordu-erdia)
 luze (egin, iritzi)



TRANSKRIPZIOA

ONINTZA ENBEITA. Gaur 'ni-on-in', jende inpuntualari buruz. Sartu bideoa.

Gaur egingo dogu (dugu) berba lekuetara puntual heltzen ez den jendeari buruz; hau da, jende inpuntualari buruz. Jende inpuntuala, denboraren arabera, talde desberdinetan sartu leiteke.

1. ekipoan bot minututarrak. Leku guztietara bost minutu beranduago heltzen direnak; beti bost, total bost minutu baino ez direnez, ez dabe esplikaziorik emon behar. "Barkatu", baina bost minutu baino ez direnez. Baina beti, beti... Hori bai, kontuak eskatzea okurritzen bajatzu... "Bost minutu baino ez dira izan".

2. taldea da ordu-laurden berandu heltzen direnena, 15 minutu beranduago. Luze egiten da, zer esanik ez bakarrik bazagoz itxaroten; edo herriko astunena badago zure ondoan, pilako lata emoten. Zuk esplikazino bat eskatzen badozu, orduan 5 minutu gehiago behar dabez (dituzte) oraindino, atxakia on bat pentsatzeko. "Trafikoa, neska, zeozer egin beharko da hainbeste kotxegaz". Urten (irten) hadi lehenago etxetik!

Eta gero dagoz ez 5 minutu, ez ordu-laurden, ordu-erdi edo gehixeago tardatzen dabenak ailegatzten. Han itxarotzen zagozenezan sikiera haserre zagoz (zaude), oso haserre. Momentu baten oso kezkatuta zagoz, zeozer pasatu jakolako. Baina 40 minutu, whatsapp heltzen denean esaten berandu helduko dela, sumina... Orduan bai dela hobeto apur bat beranduago heltzea, bestela, momentu horretan harrapatzen badozu... Orduan heltzen dira, mundua gelditzeko moduko atxakia botatzen deutsu: "Barkatu, pelukeria. Gaur bakarrik eduki dot ordua eta orain arte han egon naz. Esango dozu..." Esango dot?!

Eta gero dagoz inoiz agertzen ez direnak. Baina horiek normalean izaten dira gauez esagutu dozun jendea, egunez damutu eta holako gauzak. Beste 'ni-on-in' baterako ematen du horrek.